




HASIER ETXEBERRÍA idazlea, atzo, Donostian, Susa argitaletxearekin kaleratu duen *Mutuaren hitzak* eleberria eskuetan duela. IMANOL OTEGI / ARGAKZI PRESS

Ihes betearen bila

Damian Arruti pertsonaia berriro agertu da Hasier Etxeberriaren 'Mutuaren hitzak' eleberrian

AINHOA OIARTZABAL - DONOSTIA

Mutuek asko dute esateko, nahiz eta ezin. Igual, horrexegatik. Hasier Etxeberriak (1957, Elgoibar) bi urtez mutu eduki du Damin Arruti pertsonaia (*Eulien bazka*, 2003, Susa), eta orain, *Mutuaren hitzak* (Susa) eleberrian, esateko ez ezik, pentsatzeko, iradokitze-ko, aldarrikatzeko, deskribatzeko nahiz filosofatzeko gauza askorekin agertu da plazara. Damin Arruti pertsonaia «hazten» ari baita Gorka Arrese Susako editorearen arabera. «Nobela hau, aurrekoa bezala, hilketa batzuen inguruko trama korapilatu batean oinarriturik eraikitzen da, baina traman baino gehiago, pertsonaiaetan oinarritzen da». Arrutirekin batera XX. mende bizi izan duten pertsonaia interesgarri gehiago ageri dira liburuan, editorearen aburuz.

Eulien bazka amaitzen den lekuan hasten da *Mutuaren hitzak*: ospitalean. Damin Arruti entomologoa han baitago ezarriko ebakuntza bat dela-eta. Ebakuntzaren ostean Baztango lagun margolari baten etxera joatea deliberratu du, atsedean hartzera. «Nora eta artista baten etxera! Lurrikara baten erdira», dio liburuen egileak. Behin han dela gertaera eta arazo berriak sortuko baitzaizkio protagonistari.

Bere protagonista Baztanen

bezala, Hasier Etxeberria «neka-tu, aspertu, gogaitu» egin da eleberriarekin. «Oso ongi pasatu dut, baina oso gaizki ere bai». Horrexegatik, orain ez du buruan pertsonaia berarekin beste eleberri bat egitea, «Damian asko maite arren». Horrexegatik hain zuzen, hirugarrena idatziko duela ziur dira Gorka Arrese editorea eta liburuen aurkezpenean lagundu zuen Harkaitz Cano idazlea.

Arkitektura japoniarra eta botanika

Etxea handitzeko lanean ari zela idatzi du Etxeberriak *Mutuaren hitzak*. Eta etxe bat eraikitzen den bezala eraiki du: «Aurrena, nolakoa egin nahi duzun irudikatu behar duzu, zirriborroak egin. Arkitektoen lana. Eta aldi baterako irakurlea aterpetuko duen etxe horretan norberaren estiloa atzeman behar da». Hots, nor den arkitektoa. Gero, igeltsero lana dator. Lan «arriskutsua». «Lurra atondu, leihoak jarri, kableak pasa... zer edo zer gaizki jarri gero, atzeman egiten da behin obra amaitutakoan».

Etxeberria saiatu da kontatu nahi zituenak kontatuz batera inorentzako izango den etxetxoa egiten, «etxegintzaz nik dakidan apurrarekin». Langintza horretan japoniarra dela konturatu da: «Hau da, etxeko leiho guztiak to-

ki berera begira egon arren, paisaia ez da errepikatzen. Batean lore bat, bestean harri bat... beti jarriko dute leiho horretan bakar bihurtzen duen zer baita».

Eulien bazka-n intsektuak ageri ziren bezala ageri dira landareak, «belarren mundua», Etxeberriaren azken eleberrian. Munduko ia gauza guztiak gus-tatzen zaizkiola aitortu du idazleak, eta horien artean dago botanika. Horri buruz gehiago ikasteko aitzakia ere izan du *Mutuaren hitzak*. Eta oso ongi etorri omen zaio bere estiloari landareen munduaren presentzia hori, «perfume» hori: «Izan ere, gustatzen zait irakurleek eta as-

kotan nik neronek ere ez jakitea zer den errealtatea eta zer fikzioa».

Ihesa ihesaren atzetik

Damin Arruti pertsonaia On Kixoterekin alderatu du Harkaitz Cano idazleak, eta hark bezala, munduaren kontra, «justiziaren bila», diharduela dio. Eta nola genero beltzeko protagonista izanik krimena dagoen tokian egoten den beti; «edota bera dagoen tokian egiten da beti krimena? Berdin dio, egia esan». Oso pertsonaia berezia delakoan dago: «irakurlea, artezalea, idazlea ere bada... Hasier tranpa egiten ari dela irudi dezake, bere zaletasunak ageri baititu bere pertsonaiaren ahotik. Zentzu batean hala da, baina horrexegatik idazten dugu». Horrexegatik pertsonaia bizi luzea duela uste du Canok.

Mutuaren hitzak eleberria bertako protagonista Damin Arruti idazten duen kaiera da finean, narratzaile diferenteen ahotsetatik kontatua. «Eleberrian dena da erreplika, dena ispilu», azpimarratu du Canok. Eta dena da ihesa. Pertsonaiek etengabe egiten diote ihes euren buruari, «azken ihesaren amaierara iristea atzeratzeko; hots, norberaren burua ikusiko dugun ispiluaren aurrean jartzea saihesteko».

Peter B. Kyneren 'The Go-Getter'-en itzulpen anonimoa kaleratu du EIZIEK

JUAN LUIS ZABALA

Itzultzaile anonimoari egin-dako omenalditzat jo daiteke *Garailea*, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak (EIZIE) Itzultzaile Aitzindariak bildumaren barruan kaleratu duen hirugarren liburua. Peter B. Kyne idazlearen *The Go-Getter* nobelaren itzulpena da *Garailea*. Itzultzailearen sinadurarik gabe argitaratu zen lehen aldiz, duela 70 urte, *Argia* aldizkariaren 1935eko *Egutegia*-n, eta orain Inazio Mujika Iraolak apailatutako berrargitalpenak itzultzaile anonimo haren lana berreskuratu du.

Lana bai, baina itzultzailearen izena berreskuratzerik ez du izan Mujikak. Hasieran itzultzailea Ander Arzelus *Luzear* izan zitekeela pentsatu bazuen ere, idazmoldeak hipotesi hori baztertzera eramane zuten berehala: «Luzearrek ez zituen *Garailea*-ren itzultzaileak erabili zituen moduko laburtzeak eta fonetismoak erabiltzen».

Itzultzailea Joxe Migel Zumalabe izan zitekeela uste du Mujikak: «Zumalabe itzulpen lanetan ibili zen, eta Jules Verneren lan baten itzulpena ere egin zuen, antza denez, gero 36ko gerran galdu egin zuen arren. Gainera, Zumalabe gaztea zen 1935ean, eta *Garailea*-ren itzultzailea ere gazte zela pentsa daiteke. Ez da behintzat idazle egina. Ondo egiten du itzulpena, sen handiz, bere lanak ez du egungo testu askoren lotsarik, baina une jakin batzuetan halako gordintasun bat edo antzema-tzen zaio itzultzaileari». Ez dago, ordea, inondik ere itzulpena Joxe Migel Zumalabek egin dela ziurtatzerik. Are gehiago: haren anaia Agustin ere izan zitekeen itzultzailea, Mujikaren ustez.

Gipuzkoako euskaraz eginkoa da *Garailea*-ren itzulpena; «eta Beterriko mugapetik oso urrutikoa ere ez», Mujika Iraolaren ustez.

Testua irakurleari gerturatzeko saiatu zen itzultzaile anonimoa. «Izerdi pixka bat aterako zuela iruditzen zait, zurruntsunik ez txertatzeko euskal ordainari», dio Mujikak liburuen sarrerarako idatzi duen testuan.

Bere euskarazko itzultzailea ez bezala, mundu osoan ezaguna da Peter B. Kyneren *The Go-Getter* nobela, oso ere ezaguna: 500.000tik gora ale saldu dira.